Los diferentes agentes sociales, políticos y sindicales presentes, queremos reiterar en primer lugar, nuestro apoyo y solidaridad con el compañero y activista de la causa saharaui Hassanna Aalia.

**Lehenik eta behin, bertaratu garen eragile sozial, politiko eta sindikalek, gure babesa eta elkartasuna adierazi nahi diogu Hassanna Aaliari, gure adiskide eta sahararren aldeko borrokako aktibista.**

Hassanna nace en El Aaiún, Sahara Occidental en 1988. A los 17 años inicia su militancia política en defensa de los derechos humanos y a favor de la autodeterminación del pueblo saharaui. Desde entonces hasta su última salida del territorio ha sufrido maltrato, tortura y detenciones en distintas comisarías de policía marroquí.

**Hassanna Mendebaldeko Saharan, Aaiun-en, jaio zen 1988. urtean. 17 urte zituela, bere militantzia politikoari ekin zion, giza eskubideen defentsan eta herri sahararraren autodeterminazio eskubidearen alde. Harez geroztik, eta herrialdetik azken aldiz atera arte, tratu txarrak, tortura eta atxiloketak pairatu ditu polizia-etxe marokoarretan.**

En marzo de 2011, tras su participación en el Foro Social Mundial que se celebró en Febrero en Dakar (Senegal), vino a esta comunidad autónoma con una beca de formación para jóvenes activistas saharauis de la zona ocupada para formarse en derechos humanos (a partir de ahora DDHH) y derecho internacional. Tras tres meses de periodo de estudio, Hassanna volvió al Sáhara Occidental ocupado en Mayo del mismo año, donde allí continuó con su lucha pacífica y compromiso político en defensa de los DDHH.

**2011ko martxoan, hilabete lehenago Dakarren (Senegal) izandako Munduko Foro Sozialean parte hartu ondoren, autonomia erkidego honetara etorri zen giza eskubide eta nazioarteko zuzenbide ikasketetan sakontzeko, okupatutako eremuko gazte sahararrei zuzendutako beka bati esker. Urte bereko maiatzean, hiru hilabetez ikasten egon ostean, Hassanna okupatutako Mendebaldeko Saharara itzuli zen, giza eskubideen aldeko konpromiso politiko eta borroka baketsuari eutsiz.**

En octubre de 2011, vuelve otra vez a esta comunidad para seguir con la segunda parte de la formación. Es cuando un mes más tarde de su segunda llegada aquí, tuvo el conocimiento mediante una llamada, que el Tribunal Militar Marroquí en Rabat, le había incluido en un sumario militar, juntos con otros 24 compañeros, por su participación en el campamento de la Dignidad de Gdeim Izik.

**2011ko urrian, bigarrenez etorri zen autonomia erkidego hontara, bere formazioaren bigarren zatiarekin jarraitzeko. Handik hilabetera, telefono dei baten bitartez jakin zuen, Rabaten dagoen Epaitegi Militar Marokoarrak, beste 24 lagunekin batera**

**sumario militar batean sartu zuela, Gdeim Izik-en Duintasun kanpamendu batean parte hartzeagatik.**

Por todo ello, en enero de 2012, Hassanna solicita el asilo al estado español. Mientras tanto, continua con su formación en DDHH y participación en diferentes charlas, encuentros, etc. por todo el territorio.

**Horregatik guztiagatik, 2012ko urtarrilean, Hassannak asilo politikoa eskatu zion Espainiako estatuari. Bien bitartean, giza eskubideen inguruko formazioarekin eta hainbat hitzaldi eta topaketetan parte hartzen jarraitu zuen herrialde osoan zehar.**

En febrero de 2013, estando residiendo aquí, tuvo conocimiento mediante una radio on-line, de la sentencia que lo condenaba de manera completamente injusta a cadena perpetua, por los hechos acontecidos en el campamento de Gdeim Izik. El juicio lo efectúa el Tribunal Militar de Rabat en el Reino de Marruecos donde son juzgados 25 civiles.

**2013ko otsailean, hemen zegoela, internet bidezko irrati baten bidez, guztiz erabaki bidegabe baten berri izan zuen: biziarteko kartzela zigorra ezarri zioten, Gdeim Izik-eko kanpamenduko gertakizunengatik. Epaia Rabateko Auzitegi Militarrak ezarri du, 25 zibil kondenatuz.**

Múltiples organismos a nivel internacional han denunciado públicamente y de forma unánime que el procedimiento seguido en el juicio de este Tribunal Militar, no cumplía las garantías mínimas para considerarlo un juicio justo, porque las declaraciones de las personas acusadas se habían producido aparentemente bajo torturas, además de no poder presentar todas las pruebas que demandaron para demostrar su inocencia y por encontrarse actas policiales falseadas.

**Nazioarteko hainbat erakundek publikoki eta aho batez salatu dute Auzitegi Militar honek abian jarritako prozedura ez dela bidezkoa, ez baititu gutxieneko bermerik betetzen: Dirudienez, akusatuen deklarazioak torturapean egin dituzte; gainera, ezin izan dituzte aurkeztu euren errugabetasuna baieztatzeko eskatutako frogak; eta azkenik, polizia akta faltsuak aurkitu dira.**

Este Tribunal se basa en una acusación falsa contra Hassanna, que no ha respetado ni siquiera, el principio de contradicción y defensa del mismo porque no estuvo él allí para poder llevarlo a cabo. Además, la sentencia dictada por dicho Tribunal Militar, ni siquiera se pudo someter a un recurso ordinario.

**Auzitegi honek Hassannaren aurkako akusazio faltsu batean oinarritu da. Ez du kontraesan eta defentsa printzipioa ere errespetatu, bera ez baitzen bertan izan hura gauzatzeko. Gainera, Auzitegi Militar honek emandako epaiari ezin izan zitzaion errekurtso arrunt bat ezarri.**

Entre los organismos que actuaron como observadores en el juicio, se encontraban: La Asociación Internacional para las Observadoras y observadores de los DDHH, Amnistía Internacional, Human RightsWatch, eurodiputadas/os, la Fundación Sahara Occidental, la Comisión de Asuntos Exteriores del Parlamento Europeo, la asociación marroquí por los DDHH, así como distintas formaciones políticas.

**Hauek dira epaiketan behatzaile lanak egindako erakundeetako batzuk: Giza Eskubideen Behatzaileen Nazioarteko Erakundea, Amnistia Internazionala, Human Rights Watch, hainbat eurodiputatu, Mendebaldeko Saharako Fundazioa, Europako Parlamentuko Atzerri Batzordea, Giza Eskubideen aldeko elkarte marokoarra, eta alderdi politiko ezberdinak.**

Tal y como ha afirmado públicamente el abogado de Hassana, Javier Canivell; el pasado día 19 de enero se le notifica desde el Ministerio del Interior que le ha sido denegada la protección internacional solicitada y le emiten una orden de salida del país obligatoria en un plazo máximo de 15 días.

**Javier Canivell, Hassannaren abokatuak publikoki adierazi duenez, urtarrilaren 19an Barne Ministeriotik jakinarazi zitzaion, eskatutako nazioarteko babesa ukatua izan dela eta Hassanna estatutik 15 egunetan ateratzera behartzen duen agindua igorri zaiola.**

La resolución que le llega a Hassanna, reconoce que éste es un activista de la causa saharaui, que pertenece a la Asociación Saharaui de Víctimas de violaciones graves de Derechos Humanos y que tanto Hassanna, como la Asociación, llevan a cabo su activismo de forma pacífica. Igualmente reconoce que Hassanna desde los 17 años ha sufrido detenciones, malos tratos y torturas por parte de la policía marroquí. Por lo tanto, Hassanna cumpliría con los requisitos establecidos para obtener el estatuto de refugiado. Sin embargo la resolución que le han notificado a Hassanna apoyándose y sin cuestionar la sentencia del Tribunal Militar de Rabat, decide negarle este derecho establecido en la ley 12/2009 que establece y regula el derecho al asilo en el Estado español.

**Hassannari helarazi zaion ebazpenak onartu egiten du borroka sahararraren aldeko ekintzailea dela, Giza Eskubideen urraketa larrien Biktimen Elkarte Sahararreko kidea dela, eta bai Hassannak zein aipaturiko elkarteak, euren jarduna era baketsuan garatzen dutela. Era berean, onartu egiten da Hassannak 17 urte zituenetik atxiloketak, tratu txarrak eta torturak pairatu dituela polizia marokoarraren eskutik. Beraz, Hassannak errefuxiatu estatutua eskuratzeko ezarritako eskakizunak betetzen ditu. Aitzitik, Hassannari jakinarazitako erresoluzioak, oinarritzat hartzen du eta ez du zalantzan jartzen Rabateko Auzitegi Militarraren epaia, eta Estatu espainolean asilo eskubidea arautzen duen 12/2009 legean zehaztutako asilo eskubidea ukatu egiten dio.**

Hassanna corre grave peligro de ser detenido, encarcelado para el cumplimiento de la cadena perpetua que en si misma puede ser considerada como un trato inhumano o degradante.

**Hassanna atxilotua izateko arrisku larrian dago; biziarteko kartzela zigorra betetzeko espetxeratua izan daiteke, berez tratu krudel eta iraingarritzat jo daitekeena.**

El Alto Comisionado de Naciones Unidas para los Refugiados-ACNUR, también ha apoyado expresamente la solicitud de protección de Hassanna, haciendo caso omiso el Estado español a su petición.

**UNHCR, Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatariak ere, Hassannaren babes eskaeraren alde agertu da, baina Estatu espainolak ez du aintzat hartu.**

Por las causas anteriormente descritas, desde las organizaciones aquí presentes:

**Honengatik guztiagatik, bertaratu garenok honakoa adierazi nahi dugu:**

Exigimos al Ministerio de Interior del Gobierno de España a que conceda el asilo político a Hassanna Aalia, aceptando su petición de protección internacional, dado que si vuelve a su país será castigado duramente por las autoridades ocupantes marroquíes y no volverá a salir de prisión en lo que le queda de vida, porque es una persona activa políticamente, de reconocimiento internacional que lucha pacíficamente por el derecho de autodeterminación del pueblo saharaui.

**Espainiako Gobernuko Barne Ministerioari Hassanna Aalia-ri asilo politikoa ematea eskatzen diogu, egindako nazioarteko babes eskakizuna onartuz. Izan ere, bere herrira itzuliz gero, gogortasunez zigortua izango da agintari okupatzaile marokoarren eskutik eta bizitza osoan ez da berriz ere espetxetik aterako. Hassanna ekintzaile politiko bat delako, nazioartean aitortua, eta herri sahararren autodeterminazio eskubidearen alde era baketsuan borrokatzen duelako.**

Y por todo ello, convocamos a una manifestación nacional en Bilbo bajo el lema de "Hassanna LIBRE, asilo politikoa orain!" El día sábado 31 de enero, a las 17hrs. Una manifestación que partirá desde el Teatro Arriaga y finalizará en la Subdelegación del Gobierno.

**Horregatik guztiagatik, "Hassanna LIBRE, asilo politikoa orain!" lelopean, manifestazio nazionala deitzen dugu Bilbon larunbat honetan, urtarrilaren 31n, arratsaldeko 17:00etan. Manifestazioa Arriaga plazatik abiatuko da eta Gobernuaren Ordezkariordetzan amaituko da.**

Llamamos a la ciudadanía que secunde esta manifestación ante esta vulneración de derechos civiles y políticos y que entre todos y todas hagamos presión para la concesión de asilo político a Hassanna.

**Eskubide zibil eta politikoen urraketa honi aurre egiteko, herritarrak larunbateko manifestazioan parte hartzera deitzen ditugu, guztion artean indarra egin dezagun, Hassannari asilo politikoa eman diezaioten.**